

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

4147

333/2012 FORU AGINDUA, ekainaren 25ekoa. Honen bidez behin betiko onartu da Bastidako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa honen espedientea: landalurreko 1. poligonoko 137., 142., 144., 156. eta 332. lurzatiak eta 140 A lurzatiaren zati bat birkalifikatzea.

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2010eko apirilaren 20an Bastidako Udalak ondoko espedienteari hasierako onarpenera ematea erabaki zuen: "Bastidako (Araba) Arau Subsidiarioen aldaketa: upeltegia ezartzea "Alto el Otero" deritzon tokian". Egintza hartan onartu zen espedientea jendaurrean jartzea 45 egun baliodunetan, eta horretarako iragarkia argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean 2010eko maiatzaren 3an (47. zk.), El Correo egunkarian 2010eko apirilaren 27an eta Udalaren iragarki oholean.

Bigarrena.- 2010eko apirilaren 27an hasierako onarpenera Aldundiaren Mendi Zerbitzuari jakinarazi zitzaion, eta gero, 2010eko uztailaren 12an, zerbitzu horrek bere eskumeneko gaiei buruzko txostena eman zuen.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen artean ez zen aurkeztu inolako alegaziorik. Ondorioz, 2010eko abuztuaren 25eko bilkuran Udalak behin-behinean onartu zuen espedientea eta Foru Aldundiko ingurumenaren arloko organoari eskatu zion egin zezala ingurumeneko behin betiko txostena, beharrezkoa baitzen, proposatutako zehaztapenek lurzoru urbanizaezina ukitzen zuten eta. Txostena 2010eko abenduaren 1ean eman zen.

Laugarrena.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeko Arabako Hirigintza Plangintzako Atalak, 4/2011 bilkuran (uztailaren 14an), espedientearen aldeko txostena eman zuen, baldintza hau jarrita: Guardiako (Arabako Errioxa) Arlo Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialeko 34. artikuluan ezarritako bete behar zela.

Bosgarrena.- Bastidako Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espedientea (sarrera eguna: 2011ko urriaren 3a), behin betiko onar zezan, bidezkoa bazen.

Gero, Hirigintza Zerbitzuak 2011ko azaroaren 17an eta abenduaren 23an egindako errekerimenduei erantzunez, Udalak agiri gehiago bidali zituen (2011ko azaroaren 7an eta 2012ko otsailaren 2an jaso ziren Erregistro Orokorrean).

Seigarrena.- 2012ko martxoaren 23ko idazki baten bidez Bastidako Udalak espedientearen izapidetza eteteko eskatu zuen antzemandako oker batzuk zuzentzeko. Apirilaren 4ko 158/2012 Foru Aginduaren bidez etendura ezarri zen eta agindu zen gehienez hiru hilekoa izan zitekeela.

Zazpigarrena.- Osoko Bilkuraren 2012ko maiatzaren 24ko erabakiaren ondoren Bastidako Udalak, agiria zuzenduta, espedientea Foru Aldundiari bidaltzea erabaki zuen, bidezkoa bazen onar zezan. 2012ko ekainaren 1ean jaso zen Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

Zortzigarrena.- Txosten bana egin dute Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak eta Errepide Zerbitzuak.

Bederatzigarrena.- Halaber, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/99 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko, espediente honen berri eman zitzaion Arabako Hirigintza Batzordeari ekainaren 18an (4/2012 bilkura).

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Espedientearen xedea indarreko Arau Subsidiarioetan zaharberritu beharreko basoa den 15.405,23 m²-ko eremuaren kalifikazio aldatzea da: aldaketaren ondoren erabilera mugatuko nekazaritzako lurzoru izango da. Aldaketak Bastidako udalerriko lurzati hauek ukitzen ditu: 137., 142., 144., 156. eta 332. lurzatiak eta 140 A lurzatiaren zati bat.

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

4147

ORDEN FORAL 333/2012, de 25 de junio, de aprobación definitiva del expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Labastida, referente a la recalificación de las parcelas 137, 142, 144, 156, 332 y parte de la 140 A del polígono 1 de rústica.

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 20 de abril de 2010, el Ayuntamiento de Labastida acordó aprobar inicialmente el expediente de referencia cuya documentación técnica aportada se titula "Modificación de las Normas Subsidiarias de Labastida (Álava) Implantación de bodega en el "Alto el Otero". Se aprobó en dicho acto someter el expediente a información pública por un periodo de 45 días hábiles, hecho que fue practicado mediante el anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 47, de 3 de mayo de 2010, en el periódico El Correo, de 27 de abril de 2010, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Dicha aprobación inicial se notificó, en fecha 27 de abril de 2010, al Servicio de Montes de la Diputación, que emitió informe en lo concerniente a su competencia sectorial, en fecha 12 de julio de 2010.

Tercero.- Durante el periodo de información pública no se presentó ninguna alegación. En consecuencia, el Ayuntamiento procedió, en sesión de 25 de agosto de 2010, a aprobar provisionalmente el expediente y solicitar del órgano medioambiental de la Diputación Foral el informe definitivo ambiental correspondiente, al afectar las determinaciones propuestas al suelo no urbanizable, el cual fue emitido el 1 de diciembre de 2010.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en el art. 91.2 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en la Sesión 4/2011, de 14 de julio, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava, informó favorablemente con condiciones el expediente, especificando la necesidad del cumplimiento del contenido del artículo 34 del PTP del Área Funcional de Laguardia (Rioja Alavesa).

Quinto.- El Ayuntamiento de Labastida remitió el expediente a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, si procediese, donde tuvo entrada el día 3 de octubre de 2011.

Posteriormente, a requerimientos del Servicio de Urbanismo, de fecha 17 de noviembre y 23 de diciembre de 2011, remitió documentación complementaria que tuvo entrada en el Registro General el 7 de noviembre de 2011 y 2 de febrero de 2012.

Sexto.- En escrito de 23 de marzo de 2012 el Ayuntamiento de Labastida solicitó la suspensión de la tramitación del expediente para subsanar varios errores advertidos en el mismo, la cual y por un plazo máximo de 3 meses, fue acordada mediante Orden Foral 158/2012, de 4 de abril.

Séptimo.- Previo Acuerdo plenario de 24 de mayo de 2012, el Ayuntamiento de Labastida, una vez corregido el documento acuerda la remisión del expediente a la Diputación Foral para su aprobación definitiva si procediese, teniendo su entrada en el Registro General el 1 de junio de 2012.

Octavo.- Han emitido informe el Servicio de Patrimonio Histórico-Arquitectónico, el Servicio de Desarrollo Agrario y el Servicio de Carreteras de la Diputación.

Noveno.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 4/2012, de 18 de junio.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente tiene por objeto la recalificación de 15.405,23 m² que en las vigentes Normas Subsidiarias están calificados como Zona Forestal y a restaurar y que pasarían a ser calificados como Zona agrícola de uso limitado. Las parcelas afectadas son la 137, 142, 144, 156, 332 y parte de la 140 A del municipio de Labastida.

Bigarrena.- Aldaketaren justifikazioa da sustatzaileak upeltegia eraiki nahi duela bere lursail batean. Lursailaren azalera eta aurrean aipatutako eremua bat eginda guztirako azalera 45.163,80 m² da.

Hirugarrena.- Ingurumen eraginari buruzko behin betiko txostenak hauxe dio:

“Hirigintzako agiriaren norainokoa eta IEBEren azterlanaren emaitzak aztertu ondoren, ingurumenaren arloko organo honek adierazten du ados dagoela hizpide dugun xedapen aldaketarekin, baldintza hau jarrita: eremua zaharberitzeko proiektuan ingurumena hobetzeko eta suspertzeko konpentsazio neurriak aplikatuko dituen tokiak proposatu behar dira (organo honek onartu beharko ditu). Konpentsazio neurriak aplikatzeko proposamenak gauzatzeko eremua zaharberitzeko edo ingurumena egokitzeko programa xehatua prestatu beharko da, eta bertan egingo diren lanak eta prozesuaren faseak zehaztu behar dira, eta agiri kartografikoak eta aurrekontua erantsi behar dira.”

Ingurumenaren arloko organoak eskatzen duenaren arabera, agiri bategin batean ingurumena hobetzeko eta suspertzeko konpentsazio neurriak non ezarriko diren zehaztu behar da, espedientearen eremua zaharberitzeko eta bertako landaretza berritzeko ezarritako neurrien osagarri.

Laugarrena.- Aldundiko Nekazaritza Saileko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak adierazi du Arau Subsidiarioen aldaketak ez duela ukitzen erregistratutako landa biderik. Gainera, esan du Arabako Errioxa – Errioxako Sonsierra Ureztatzaileen Elkartearekin hitz egingo dela aldaketak lurren ureztaketa aldatzeko eta hobetzeko proiektua eragozten duenez argitzeko eta kontaktu horietatik sortzen diren ondorioak testu bateginean jasoko direla, eta ondorioz espedientearen kontuz jokatu beharko dela eragozpenik batere ez sortzeko.

Bosgarrena.- Herrilan eta Garraio Saileko Errepide Zerbitzuak upeltegiaren eta A-125 errepidearen arteko lotunea nolakoa izan behar den zehaztu du: biratzeko erradioa 15 metrokoa izan behar da eta abiadura aldatzeko falkak jarri behar dira (planoan zehaztu dute non).

Seigarrena.- Agiriak indarreko arautegian izapidetzaz ezarritakoa betetzen du, bai eta goragoko mailako lurralde antolamenduan xedatutakoa ere.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartu da Bastidako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa honen espediente: landa-lurreko 1. poligonoko 137., 142., 144., 156. eta 332. lurzatiak eta 140 A lurzatiaren zati bat birkalifikatzea; baldintza hauek ezarri dira:

- Ingurumen eraginari buruzko behin betiko txostenean eskatzen denari dagokionez, ingurumena hobetzeko eta suspertzeko konpentsazio neurriak non ezarriko diren zehaztu behar da.

- Arau Subsidiarioen aldaketak Arabako Errioxa – Errioxako Sonsierra Ureztatzaileen Elkartearen lurren ureztaketa aldatzeko eta hobetzeko proiektua eragozten duenez argitzea dela eta, elkarte horrekin izango diren kontaktuen ondorioak azaldu behar dira.

- Aldatuko den eremurako sarbidea dela eta, A-125 errepidetik egingo den lotunea azaldu behar da, Errepide Zerbitzuak finkatutako diseinuari lotuta.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan espedientearen Foru Aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapidetza egin daitezen eta argitaratu dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortu du; beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan eta horretarako bi hileko epealdia egongo da ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2012ko ekainaren 25a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

Segundo.- La justificación de la modificación viene dada por la construcción de una bodega en terrenos propiedad del promotor que además de la superficie arriba indicada totalizan 45.163,80 m².

Tercero.- En el informe definitivo de impacto ambiental se concluye lo siguiente:

“Una vez analizado el alcance del documento urbanístico y el contenido del Estudio de ECIA, señalar que este Órgano Ambiental informa favorablemente el contenido de la presente Modificación Puntual de manera condicionada a la inclusión en el Proyecto de Restauración de una propuesta de emplazamiento o emplazamientos, a aprobar por este Órgano Ambiental, en los que se lleven a cabo medidas compensatorias de mejora y recuperación ambiental. Esta propuesta de medidas compensatorias se plasmará asimismo en un programa de restauración o adecuación ambiental pormenorizado que recoja las distintas fases y trabajos a llevar a cabo, con su correspondiente documentación cartográfica y presupuesto.”

Consecuentemente con lo exigido por el órgano ambiental deberán recogerse en un documento refundido el emplazamiento o emplazamientos en los que se lleven a cabo medidas compensatorias de mejora y recuperación ambiental, completando así la Restauración y la Revegetación ya incluidas en el expediente.

Cuarto.- El Servicio de Desarrollo Agrario del Departamento Foral de Agricultura señala que la Modificación no afecta a camino rural alguno registrado e indica que el Texto Refundido contendrá el resultado de contactos a mantener con la “Comunidad de Regantes Rioja Alavesa Sonsierra Riojana sobre posibles interferencias con su proyecto de Transformación y Mejora de Regadío, por lo que el expediente habrá de considerar las cautelas necesarias para evitar posibles interferencias.

Quinto.- El Servicio de Carreteras del Departamento de Obras Públicas y Transportes especifica la condición de la remodelación del acceso a la bodega desde la carretera A-125 con radio de giro de 15 metros y cuñas de cambio de velocidad, según plano proporcionado al respecto.

Sexto.- El documento cumple la normativa vigente en cuanto a tramitación y a lo dispuesto en la ordenación territorial de orden superior.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Labastida referente a la recalificación de las parcelas 137, 142, 144, 156, 332 y parte de la 140 A del polígono 1 de rústica, con las siguientes condiciones:

- Respecto a lo exigido en el Informe Definitivo de Impacto Ambiental, recoger el emplazamiento o emplazamientos concretos donde se llevarán a cabo las medidas compensatorias de mejora y recuperación ambiental.

- Respecto de la posible interferencia con el “Proyecto de Transformación y Mejora de Regadío” de la Comunidad de Regantes Rioja Alavesa Sonsierra Riojana, expresar el resultado de los contactos a mantener con esta última.

- Respecto del acceso al ámbito objeto de la modificación, incluir la remodelación del acceso rodado desde la carretera A-125 con el diseño indicado por el Servicio de Carreteras.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 25 de junio de 2012.– La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.